

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“Aguraingo hodi biltzaileen sare berria eraikitzeko proiektua eta Aguraingo HUA berriaren oinarritzko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak eta okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara

Foru Gobernu Kontseiluak, urriaren 30an egindako bilkuran, 588/2018 Erabakia onartu zuen. Hona hemen erabaki hori hitzez hitz:

“Erantzuna Aguraingo hodi biltzaileen sare berria eraikitzeko proiektua eta Aguraingo HUA berriaren oinarritzko proiektua jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioei. Desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onartzea eta okupatu beharra adieraztea. Presazko okupazioaren adierazpena. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 6ko 119/2018 Erabakiak behin-behinean onartu zituen Aguraingo hodi biltzaileen sare berria eraikitzeko proiektua eta Aguraingo HUA berriaren oinarritzko proiektua, eta hasierako onespina eman zion horiek eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari, eta jendaurrean jartzeko izapideari.

Proiektuak jendaurrean egon diren aldian idatzizko alegazio teknikoak aurkeztu dituzte espedienteko 2/000, 11/000, 12/000, 24/000, 25/000 26/000 eta 31/000 finketako titularrek, eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak aipatutako idazki horiek aztertu eta horien gaineko txostenak egin ditu, zeinak onestu baititu Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eta bere egiten baititu Foru Gobernu Kontseilu honek; horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta erabakiari osagai ezin bereizi gisa eransten zaizkio. Txosten horiek alegazio egileei igorriko zaizkie, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 449/2018 Erabakiak behin betiko onartu ditu Aguraingo hodi biltzaileen sare berria eraikitzeko proiektua eta Aguraingo HUA berriaren oinarritzko proiektua.

Horrenbestez, bidezkoa da behin betiko onartzea proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda, proiektuak jendaurrean egon bitartean aurkeztutako alegazioen erantzunak eta izapide horretan zehar egindako egiaztapenak kontuan hartuta egindakoa; halaber, zilegi da horiek okupatu eta eskuratu beharra aitortzea, desjabetzeko, aldi batez okupatzeko eta zortasunak ezarri, aldatu edo amaitzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea nahitaetzko desjabetzapenaren legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela eta, ondorioz, horren okupazioa presazkoa deklaratu behar da. Horiek horrela, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak jakinarazten du Aguraingo egungo udal araztegia gainezka dagoela jasotzen dituen etorri eta karga kutsagarrien ondorioz, alde batetik, instalazioak behar baino txikiagoak eta zaharrak direlako, eta bestetik, herrigunean kokatuta dauden zenbait industrietatik iristen den kutsaduragatik, eta horrek baimendutako isurketa parametroak ez betetzea dakar eta tratatu gabeko urak ibilgu naturalera isurtzea eta, ondorioz, eskumenak dituen administrazioak errekerimenduak egitea. Horrez gain, zenbait isurketa izan dira istripuz, eta horrek eragina izan du ingurune naturalean eta kalte nabarmenak eragin ditu araztegitik behera. Hori dela eta, 2004. urtean konpromisoa hartu zen instalazio berri modernoagoak eta tamaina egokikoak eraikitzeko, eta une honetan proiektuak eginda daude jada eta eraikitzen hasteko izapideak hasiak dira. Obra horiei esker, egun dagoen ingurumen arazoa eta osasun publiko arriskua modu eraginkorrean konponduko dira.

Premiazko jotzeko izapide horretarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak 46 1.b) artikuluan xedatutakoari jarraituz eta baita otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari ere.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du proiektuaren xede den herrilana proiektatu eta gauzatzeko, honako hauek xedatutakoari jarraituz: apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 31.2 a) eta 36. artikuluetan; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, toki araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bateratua onartzen duenak, 30. artikuluan, eta azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, autonomia erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanenak, 7 a.10 artikuluan.

Eskumen horiek betetzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, hala xedatzen baitu nahitaezko desjabetzapenaren legeak 2.1 artikuluan. Era berean, adierazi behar da erakunde honen barne eremuan Foru Gobernu hau dela organo eskuduna desjabetzapenak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta horiek okupatu beharra onesteko, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 8.26) artikuluan ezarritakoaren arabera eta baita otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, laugarren xedapen gehigarrian ere.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den aurrekontu kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko eta Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuen proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. Erantzutea Aguraingo hodi biltzaileen sare berria eraikitzeko proiektuak eta Aguraingo HUA berriaren oinarriko proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin-behinekoko zerrenda jendaurrean egon den bitartean aurkeztutako alegazioei, eta baiezte edo ezezte, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak adierazitakoaren arabera.

Bigarrena. Onartzea proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, honekin batera doan eranskinean jasotzen dena, eta haiek okupatu eta eskuratu beharra adieraztea, desjabetzeko, aldi batez okupatzeko eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Hirugarrena. Adieraztea honi erantsitako zerrendan jasotzen diren ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, eta, horregatik, desjabetze espediente nahitaezko desjabetzapenaren legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Laugarrena. 228.356,16 euro esleitzea, eragindako ondasunen eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko, Arabako Foru Aldundiaren 2018rako aurrekontuaren 50106.5300.6000004 "Desjabetzapen hidraulikoak" partidaren kontura, eta horietatik 132.435,00 euro 18.1.18 taldearen kontura izan daitezela (xedapen erreferentzia: 18.1.18.105-4878/000) eta 95.921,16 euro 18. 18.3.19 taldearenera (xedapen erreferentzia: 18.3.19.105-215/000).

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak I. eranskinean zerrendatutako finkei dagokien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta xedapen erreferentziaren kontura. Zenbateko hori Desjabetzapen Atalaren buruaren proposamen txostena aurkeztu eta gero eta betiere nahitaezko desjabetzapenaren legeak ezarritako epeen barruan ordainduko da.

Seigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen 21/2017 Foru Arauaren 16.1.a) artikulua (abenduaren 22koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2018rako aurrekontua gauzatzekoa). Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsuaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Agurain eta Done-miliaga (Erdoñana) Udaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak eskaini dadin.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez bada onartu nahi eskainitako zenbatekoa edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru hori Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko da, nahitaezko desjabetzearen legearen arategiak 58-1 artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 5a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria
MARÍA ANGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

AGIRANGO HODI BILTZAILEEN SABIE BERBIA ERAMITZEKO PROIEKTUA ETA AGIRANGO HUIA BERBEREN ONARRIZKO PROIEKTUA
 PROYECTO CONSTRUCTIVO DE LA NUEVA RED DE COLECTORES DE SALVATERRA-AGURAN Y PROYECTO BÁSICO DE LA NUEVA RED DE SALVATERRA.

FINAREN ZK.	TITULARAREN IZENA	KALTEKIN/DAZUK		UDALERRIA	APROBETAMENDUA	ERAGINDAKO OINARRIA	BEHIN-BEHITOKIA	ERAGINDAKO AZALERA		EGUNA	ORDUA
		POLEGONIA	LIGURIA					ALDI BATERAKOA	ZORITASUNA		
Nº FINKA	NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES	PAJELA	TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	SUPERFICIE AFECTADA TEMPORAL	SUPERFICIE AFECTADA PERMANENTE	DIA	HORA
1/000	VICTOR GARCIA GARCIA DE ANDON ECHEBERRIA	1	729	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO	BIEN AFECTADO	24.244,50	18	4.524	10/12/18	10:00
2/000	TOMIBO GARCIA DE ANDON ECHEBERRIA	1	760	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO				984	10/12/18	10:45
2/000	FELIX GARCIA DE ANDON ECHEBERRIA	1	730	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO				1.215	10/12/18	12:00
3/000	FELIX GARCIA DE ANDON ECHEBERRIA	1	728	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO				682	10/12/18	12:00
3/000	FELIX GARCIA DE ANDON ECHEBERRIA	1	917	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO				1.041	10/12/18	12:00
24/000	IZABEL OCHOA DE CHINCHETRI OTATEGUI	1	1100	AGURAN / SALVATERRA	LABORANTZAPAKO LUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		9	612	197	11/12/18	10:00
25/000	ANA M. MARTINEZ DE CONTRASTA ZIFUAIUR	1	1	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		27	5.946	1.034	11/12/18	10:00
20/000	PAUSTINO QUINTANA PEREZ DE IBEREDA	1	1104	AGURAN / SALVATERRA	LABORANTZAPAKO LUBRA / TERRA DE LABOR SECANO			188	53	11/12/18	11:00
21/000	PAUSTINO QUINTANA PEREZ DE IBEREDA	1	1103	AGURAN / SALVATERRA	LABORANTZAPAKO LUBRA / TERRA DE LABOR SECANO			200	54	11/12/18	11:00
22/000	PAUSTINO QUINTANA PEREZ DE IBEREDA	1	1102	AGURAN / SALVATERRA	LABORANTZAPAKO LUBRA / TERRA DE LABOR SECANO			468	139	11/12/18	11:00
5/000	LORENAS BEZARZ DE OPAKUA AMESKUA	1	915	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		18	4.472	932	11/12/18	11:00
30/000	JUAN CARLOS URIBE SAN MARTIN	1	718	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO			888	124	12/12/18	10:00
4/000	JUAN CARLOS URIBE SAN MARTIN	1	916	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		9	2.020	370	12/12/18	10:45
13/000	JUAN CARLOS URIBE SAN MARTIN	1	732	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		56			12/12/18	12:00
17/000	JUAN CARLOS URIBE SAN MARTIN	1	695	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		254			12/12/18	12:45
18/000	JUAN CARLOS URIBE SAN MARTIN	1	940	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		6			12/12/18	12:45
22/000	ALFONSO LIMARES PEREIRE	1	1101	AGURAN / SALVATERRA	LABORANTZAPAKO LUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		76			13/12/18	10:00
18/000	ALFONSO LIMARES PEREIRE	1	1894	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		9	387	129	13/12/18	10:00
14/000	M. LOURDES EZPELETA GARCIA DE ANDON	1	733	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		109	114	77	13/12/18	12:00
15/000	ANDRES AGUIRRE SAIZ DE ARREGUI	1	721	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		110	7.954	1.690	13/12/18	12:45
29/000	ANDRES AGUIRRE SAIZ DE ARREGUI	1	721	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		27		2	13/12/18	12:45
27/000	ANA OZARGALZA ARRIBAZALAGA	1	759	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		18	5.458	819	14/12/18	10:00
16/000	MARIA DE BEGOÑA MURILLO	1	696	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		126			14/12/18	10:45
6/000	M. PILAR RESANO LABREA	1	914	AGURAN / SALVATERRA	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		30	4.762	1.088	14/12/18	12:00
7/000	M. PILAR RESANO LABREA	1	616	DONEHILAGA / SAN MILLAN	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		27	1.513	276	14/12/18	12:00
19/000	YONAGURIBENZI S.L.	1	1105	AGURAN / SALVATERRA	LABORANTZAPAKO LUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		9	63	4	14/12/18	12:45
19/000	ANUR FAMILIATO DE SALVATERRA	1	1139	AGURAN / SALVATERRA	LABORANTZAPAKO LUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		9	289	95	14/12/18	13:00
10/000	GERARDO FERNANDEZ DE LABREA SAIZ DE VICIÑA	1	613	DONEHILAGA / SAN MILLAN	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		18	2.022	409	17/12/18	10:45
8/000	J. ANGEL ARANZ ARBETA	1	615	DONEHILAGA / SAN MILLAN	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		18	4.098	861	17/12/18	12:00
9/000	JULIO RESANO SAIZ DE VICIÑA	1	614	DONEHILAGA / SAN MILLAN	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		9	2.294	432	17/12/18	12:45
11/000	PRIMITIVO DIAZ DE ARCAYARUIZ DE LUJURAGA	1	612	DONEHILAGA / SAN MILLAN	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		9	2.231	538	17/12/18	12:45
12/000	PRIMITIVO DIAZ DE ARCAYARUIZ DE LUJURAGA	1	611	DONEHILAGA / SAN MILLAN	LEHORREKO LABORANTZALUBRA / TERRA DE LABOR SECANO		9	2.231	538	17/12/18	12:45

Esp. Page: 2018441